

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Eskoriatzako
Industrialdea /8

BOTEPRONTOAN

Virginia Rivas,
prentsa saltzailea /9

LEINTZ GATZAGA

Ina Alonso,
ehiztaria /10



**Mendi
astea
Murrukixoren
eskutik**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 24
FRAILE J. Herriko plaza 10 943 79 21 99

DOMEKA, 25
FRAILE J. Herriko plaza 10 943 79 85 83

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
Aretxagazeta 943 79 86 21
Fax 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte-Laguntzaila 943 71 18 62
Hezibide Elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institua 943 79 79 00
Kiroletxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi E.E 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko M.E. 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun zentroa 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Sarebo 943 71 26 56
Taxi Geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze-Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzailak (Ofat) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:30

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak : 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domekak: 12:30

MENDIOLA
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domekak: 11:30

OHARRAK

MENDI ASTEA
Murruxikok datorren aste osorako Mendi Astea antolatu du. Astelehenetik egubakoitzera bitartean, mendiarekin lotura estua duten ekitaldi eta hitzaldiak egingo dira Murruxiko egoitzan, arratsaldeko 19:30ean.

ANDRAMARIKO AUZOKIDEEN BATZAR OROKORRA
Azaroaren 27an, Andramari auzuneko artateetako bizilagunek batzar orokorra egingo dute. Arratsaldeko 19:30ean izango da eta lekua guztiz erabaki barik badago ere seguru asko Kurtzebarri eskolan izango da.

ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETAN
Zure bizilagunei, adiskideei, lankideei edo aretxabaletarrei orokorrean ohar bat jakinarazi gura badiezu edo deialdi bat luzatu, hemen duzu tarte egoikia.
Deitu edo bidali zure oharra:
Tel.: 943 798621
Faxa eta erantzungailua: 943 771854
Helbidea: 151 posta kutxa, 20.550 Aretxabaleta

LORAMENDIRENAGENDA

LOREAK ZELAN ZAINDUP
Ixiar Lazkanok loreak zelan zaindu behar diren azalduko du datorren eguenean, hilak 29, udaletxe zaharrean, arratsaldeko 19:00etan.

TXAN MAGOA
Azaroaren 30ean, egubakoitzean, Txan Magoak ekitaldi magikoa eskainiko du ludotekako bazkide guztiendako udaletxe zaharrean, arratsaldeko 18:30ean.

ORAINDELA...

Bizikletari agur esan zion Asier Guenetxeak

Guenetxeak txirrindularitza utzi zuen 1996ko azaroaren 24an. Asierrek bost urte egin zituen profesional mailan, hiru Artiach taldearekin eta bi Euskadi taldearekin. Haren esanetan, bizikleta uzteko arrazoi nagusia izan zen orduan Euskadi moduko talde txikiak zuten etorkizun latza.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Sur-kaku"

1. Sudur konkorra, sudur makoa.
-Judixo askok sur-kakue ukitten daue.
2. Sudur konkorra duen pertsona.
-Flakosta sur-kaku batekin ebillen berbetan.



ZORIONAGURRAK



ARETXABAETA
Begonia Ledesma
23an. Urte askotarako! Etxekoan partetik muxu handi bat.



ARETXABAETA
Maider Fernández
25ean 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



ARETXABAETA
Danel Seijo
25ean urtebete. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.




ARETXABAETA
Ainhoa Altube
26an. Zorionak Alaitz, Eñaut eta etxeko beste guztien partetik!



ARETXABAETA
Mireia Irasuegi
29an. Zorionak Nerere, Larraitz eta Ugutzen partetik! Traguen zain ga



ARETXABAETA
Xabier Zubillaga
29an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Esteban Arrieta
22an. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BABESLEA

Zorionak denoi !!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABAETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* ESKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje teraupetikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatu

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAETA
Tel: 943 79 01 28



MEMESA

Industri hornidura

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 11
ARETXABAETA


ATREBENTZIAEZPADA/ Ze egitten dozu aste bukaeretan Aretxabaletan? Ze gureko zeuke egotie?



ALBERTO IZAGIRRE
Langillie




ROSA OJUEL
Langillie



IKER MORAL
Ikaslie



ANA URBANO
Langillie



RIKARDO SEGURA
Erretiraue



MAITE SEBASTIAN
Langillie

Pasiau eta kirol apur bat egin. Kultura etxe on bat eskatuko neuke, gela askodune, pelikulak ikusteko, antzerkixek, ordenariendako... Kirol etxe parien leku egokixe dago.

Mendire fan, beste ezer ezin da egin. Eta Gasteizera faten naz zinera, edo Bilbora be bai, aldaketako. Nik, ahal baneu, zine haundixek jarriko nittuke San Prudentzian, argi dauket.


Telebisiñue ikusi. Edurre egitten dauenien edur bolak botatie gustetan jat. Lagunekin gutxi urtetan dot, egune etxien pasetan dot. Edurre egotie gustauko litxakit jolas egittek.

Aspertu, besterik ez. Ze eskatuko naukien? Zeozer egon daixela: zinie, umien-dako parkiek... zoezer. Oin, egualdi txarraz gainera, etxe azpiketako aterpitan ez bada, ezin da iñun egon.

Lagunekin kalien buelta bat emun bai, behintzet. Ni izetex Zarimuzkue naz, eta hara faten naz normalien. Ez dakit ze gehixago eskatu leiken, ni konforme nago dagoenakin.

Mendire faten naz, eta bestela Gasteizera eta Bilbora, zinera edo erosketak egittera. Nik, ahal izen ezkerro, hille bakotxien edade diferentietarako ekintzak egingo nittuke herrixen.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK URKULUKO HEGAZTIAK Urte osoan egoten dira Urkulun hegaztiak, hainbat mota eta espezieetakoak egon ere. Baina azaroan, iparraldetik herrialde beroagoetara joaten den hegazti multzoa pausatzen da han. Hango txioak, hango koloreak, hango joan-etorriak, ikusgarriak dira benetan. Ez daukate gero edonon horrelako aberastasuna, hortaz, zain dezagun guztiok. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /4

KIROLA /6

NIRE BIDAIA HURA /7

Bikene Zubia

Aretxarteko presidentearekin elkarrizketa, merkatarien elkarte sortu zela urtea betetzear

Murrukixok Mendi Astea

Murrukixo mendizale elkarteak Mendi Astea antolatu du azaroaren 26tik 30era bitartean

Fernando Berrizbeitia

Aurtengo udan Estatu Batuetan egon ostean, han ikusitakoaren eta bizitakoaren berri zuzena

ASTEKODATUA

14

MILIOIKO ZORRA DAUKA PARROKIAK ORDAINTZEKO

Zaharberritze lanak bukatuta, inauguratze ekitaldia eginda, oraindik 14 milioi geratzen dira ordaintzeko. Orain ere, aretxabaletarrei dei egin diete ahal duten neurrian lagun dezaten.


BESTEKEESANA

Okerra zuzendu gura dugu ARETXAGAZETA-tik, joan den asteko alean ez genuen-eta behar bezala jarri parrokiari egin diren zaharberritze lanen gaineko informazioa. Esan genuen aldarean erretaularen ordez eskaiolazko zutabeak jarri dituztela Kristo gurutziltzatuaren inguruan, eta zutabeak bai jarri dira, baina ez dira eskaiolazkoak. Egurrez eta porlanez egindako nahasketa batekin eraiki dituzte. Hortaz, barkatu gaizki esana.

Gogorarazi herritar guztioi zuen zerbitzura gaudela bai berriak jaso eta kaleratzeko, bai zorian-agurrak jasotzeko, baita gaizki esanak zuzentzeko ere. Horrez gain, jakinarazten dizuegu txoko hau zuen eskutitz eta esanei zabalik dagoela. Kexak, iradokizunak... guztiak daukate lekua tarte honetan.

ARETXAGAZETAKO LANGILEAK

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Homo agricola

Orain berriantzunda-koaren arabera, "euskal baserritarra" galtzearen omen da. Eboluzioak ez duela barkatzen, alajaina! Gauza jakina da, antzinako garai batean, non bizitza lurriari atxikia zegoen, espezie honek -"espezie" deitza zilegi bada-"boterearen" zenita lortu arren, egun, ordukoen ondorengo "ahul" batzuk besterik ez gaudela. Baina ez gaitezen espekulazioetan erori, irakurle; izan ere, funts ziurrik edota datu zehatzik gabe ahoa zabaltzea nahikoa baita eszeptizismoan erortzeko. Nola ihartuko da, bada, horren erro sakonak dituen zuhaitza? Baserritarra, zerbait izatekotan, gogorra da; eta biziraungo duela, seguru!

Euskal baserritarrari ahulezia baino inpotentzia nabari zaio; ez berez ahulak garelako, baizik eta bizi dugun kontsumo gizarte alu honek itotzen gaituelako. Izan ere, berariaz ala oharkabean, aurrerapena-

ren erlijioak, kontsumoaren bizioa bidaide hartuta, iritsiko ez den utopia faltsu baten esperoan, usadio eta tradizio zantzu guztiak jai eta ospakizunetara zokoratu ditu. Bitartean, euskal baserritarra izotzpean dagoen landarearen antzera dago, bizirik; fruitu berriak emateko eguzkiak noiz berotuko zain. Halaber, azkenaldian badira baserrigiroa sustatzeko zenbait beroaldi, ekintza eta iradokizun; hala nola, baserritarrentzako bikoite agentziak, gizon eta emakumeen arteko "topaguneak"...

ez dago, beraz, arestian esan bezala, zertan larriturik. Bukatzeko, esan dezadan senargairen baten premian bazabiltza eta lanari beldurrik ez badiozu... garaiz zabiltzala; zorionekoa zu! Hauze da zure aukera!

Kontu honen inguruan luze eta zabal hitz egingo nuke, baina, guztia neuk esan beharrean, komeni da zeuk ere gogeta egin dezazun. Auzia hor dago: irauñ ala ez irauñ.

"Nola ihartuko da, bada, horren erro sakonak dituen zuhaitza? Baserritarra, zerbait izatekotan, gogorra da"



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Ospakizun ugari

Aste bukaera polita izan zen aurrekoa. Zapatua, behintzat, egun borobila izan zen atxabaltarrontzat. Lehenik eta behin, Aitor Antxiak parrokiari buruzko liburua aurkeztu zuen. Gero, inaugurazio ekitaldia izan zen. Juan Maria Uriarte gotzainak polito zuzendu zuen elizkizuna, jendea gustura egon zen berari entzuten, eta zer esanik ez abesbatzakoak. Lore ederrak bota zizkien, Eurovisiónera joateko moduan daudela esan zien. Aldarea bete-beteta egon zen. Hantxe egon ziren Jon Molina, Lorentxo Galdos, Ramon Mari Elkorro, Mikel Egizabal, Don Bitoriano eta Antonio parrokoa. Polita da aldarea eta eliza hain beteta ikustea.

Behobia-Donostia lasterketan ere hotz egin arren, giro ederra egon zen. Hala ere, karrera bukatu zuten herritar batzuk ez ziren listan agertu. Aurreko alean neska bakarrak parte hartu zuela esan genuen, baina jakin dugunez, Amaia Gaztañagak ere bukatu zuen proba.

Kirol kontuekin jarraituz, datorren asterako Mendi Astea antolatu du Murrukixok. Bost gonbidaturen artean bat atxabaltarra izango da: Ramon Iturrikastillo. Ni, behintzat, joango naiz honen hitzaldira, ondo egongo da eta.

ELKARRIZKETA

BIKENE ZUBIA/ARETXARTE MERKATARIEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Gaur egun, gure eskualdean oso komertzio ona dago, eta ez dago zertan kanpora joan”

MIRARI ALTUBE

Urtebete pasatu da Aretxarte, Aretxabaletako merkatarien elkarte, sortu zenetik hona, eta Bikene Zubiak presidente lanak bete ditu tarte horretan. Gogorra izan da hasiera, baina aurrerantzean ez ditu inork geratuko.

Urtebete pasatu da Aretxarte sortu zenetik hona. Zein balorazio egingo zenuke?

Balorazio ona. Aretxarteko merkatariek asko baloratu dituzte egin ditugun ekintzak, eta poza ematen du horrek. Egia esan, ez gara geldi egon, hainbat kanpaina eraman dugu-eta aurrera: iaz Gabonetakoa, udaberrikoa, San Migeletan ere egin dugu... Beti gabiltza zerbait asmatu guran. Hasiera gogorra izan da paper kontu asko egin beharra izan dugulako, baina orain aurrera jotzea besterik ez da geratzen.

Zenbat komertzio daude Aretxarten?

Hogeita hamazortzi. Momentuz, tabernarik ez dago, baina deialdia egiteko asmoa daukagu. Dena dela, oraindik denda asko daude kanpoan, eta Aretxarten sartzera animatuko nituzke. Sarritan kompetentzia herri barruan dagoela uste izaten dugu, eta ez da horrela, merkatariek elkartu egin behar gara elkarri laguntzeko. Zenbat eta batasun handiagoa, indar handiagoa izango dugu.

Aretxabaletako komertzioetan badago mugimendurik?

Aretxabaleta herri txikia dela kontuan hartu behar da, baina bai, badago mugimendua. Herriko komertzio txikietan produktua saltzeko beste era bat topatu behar da, eta konfiantzazko zerbitzua eman.

Aretxabaletarrok Gasteizera joateko joera handia daukagu...

Ez dut ulertzen zergatik. Gaur



MIRARI ALTUBE

“Sarritan uste izaten dugu kompetentzia herri barruan dagoela, eta ez da horrela”

egun, gure eskualdean oso komertzio ona dago, eta ez dago zertan kanpora joan. Ikerketa bat ere eginda dago, eta gure eskualdean ez da inolako zerbitzurik falta. Jendeak hemen gehiago erosiko balu, seguru nago denda gehiago zabalduko liratekeela.

Domeketan komertzioak

“Lantegietan 35 orduko lan-astea eskatzen ari dira eta guk gehiago sartu behar?”

zabaltzeari zer deritzozue?

Gaizki, merkataritxiokiok ere atsedean hartu behar dugu-eta. Lantegietan 35 orduko lan-astea eskatzen ari dira eta guk gehiago sartu behar? Ez zait batere ondo iruditzen, komertzio txikiaren kalterako dela uste dut, gainera.

Euroa datorrela-eta,

“Herritarrek garbi izan dezatela merkataritxiak ez diela iruzurrik egingo”

dendariok baduzue beldurrik?


Ez, nahiko informazio heldu zaigu bai Eusko Jaurlaritzatik bai Merkataritza Ganberatik. Herritarrek, gainera, garbi izan dezatela merkataritxiak ez diela iruzurrik egingo diru aldaketa dela eta.



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Angelines
AUTOZERBITZUAFrutan eta
txarkuterian
espezialitateaMitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETALURRINDEGIA
OPARI-DENDAMitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETABere bezeroen
zerbitzuraMitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

HIRIGINTZA/ Bi eratako etxebizitzak egingo dituzte, sozialak eta ohikoak

Tubos lantegiaren inguruan etxeak egin gura dituzte

MIRARI ALTUBE

Tubos lantegiaren parean egitekoak diren etxebizitzak berri ematen duen kartela jadanik jarrita dago. Hala ere, oraindik ezin izango dira lanak hasi, Udalak baimena eman dezan enpresa eraikitaileak hirigintza proiektua aurkeztu behar du-eta.

Albiste ez da berria, urtebete baino gehiago izango da-eta Tubos De Precision lantegi ingurua etxebizitzak egiteko lurzoru izendatu zutela. Han, gainera, bi eratako etxebizitzak egingo dituzte. Batetik, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza sozialak egiteko egitasmoa dauka, eta bestetik, Landu promozioak SL enpresa eraikitzaileak ohiko etxebizitzak egingo ditu.

HIRIGINTZA PROIEKTUA AURKEZTU ZAIN
Udalak, bere garaian, Tubos ingurua etxebizitzak egiteko zoru izendatu zuenean, hitzarmena sinatu zuen Banco Guipuzcoanorekin. Lur zati bat etxebizitza sozialak egiteko hartu zuen Udalak, eta bestea Banco Guipuzcoanoren eskuetan geratu zen. Honek Landu Promozioak SL enpresa eraikitzaileari saldu ei dio, eta orain, enpresa horrek egingo ditu etxeak.

Enpresa eraikitzailearen asmoa lehenbailehen etxeak egiten astea bazen ere, lanak atzeratu egin dira. Udalak Banco Gui-

Hirigintza proiektua aurkeztu behar du Udalean, honek baimena eman diezaion

Udalak lurzorua eman dio eta Eusko Jaurlaritzak arduratuko da etxeak egiteaz

14 etxebizitza egingo dira, eta hasiera baten, alokatzeko izango zirela esan zen

puzcoanorekin hitzarmena sinatu zuenean, hainbat baldintza jarri zizkion, eta beste batzuen artean, hirigintza proiektua aurkeztea ezinbestekotzat jarri zen. Etxeen eraikuntza datorren urte hasiera arte, behintzat, luzatuko

da, lehenik eta behin hirigintza proiektua aurkeztu behar du-eta Udalean, honek baimena eman diezaion. Hogeita lau etxebizitza izango dira guztira, hiru logela izango dituzte, baita garajea eta trastelekua ere. Urte pare bat beharko dituzte etxeak bukatuta egoteko; horrenbestez, 2004. urte hasiera, behinik behin, izango da.

ETXEBIZITZA SOZIALAK

Kaminerokua baserria dagoen tokian, bestalde, etxebizitza sozialak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak. Baserria ondare historiko izendatu zuten, mende hasieran industria lantoki txiki bat egon zelako han, baina azkenean baserria bota eta etxebizitzak egingo dituzte. Udalak lurzorua lagapenean eman dio eta Gasteizko gobernua arduratuko da gainerakoaz.

Gaia, ordea, behar baino gehiago luzatzen ari da, etxebizitza eta ingurumenari dagokion sailburu aldaketa izan da-eta. Orain, Ezker Batuko Javier Madrazo da. Udalak idatzia bidali du Eusko Jaurlaritzara gaia arindu guran, baina ez da erantzunik jaso.

Guztira hamalau etxebizitza egingo dituzte, eta hasiera baten, alokatzeko izango zirela esan zen. Eusko Jaurlaritzako Etxebide arduratuko da gainera, etxeak banatzeaz. Hortaz, Udalak ez du zerikusirik izango nori eman esateko orduan.

TXUTXUMUTXUA



Jende ugari parrokiaren inauguratzean

Aretxabaletarren parrokiaren zaharberritze lanetan zuzenean hartu dute parte dirua emanaz, eta inauguratze elizkizunean ere han egon gura izan zuten Anjel Bergaretxe alkatearekin eta Sokorro Unanue kultura zinegotziarekin batera. Eliza puntaraino beteta egon zen, bai Aitor Antxiaren liburu aurkezpena entzuteko, bai Juan Maria Uriarte gotzainaren meza jarraitzeko. Abesbatza ere fin ibili zen, gotzain jauna berbera ere hunkitzea lortu zuen-eta. /MIRARI ALTUBE

LABUR

Kooperatibismoa eta euskara aztertuko dituen ikerketa egiten dabil Amagoia Unanue

Amagoia Unanue aretxabaletarra eta Nahia Intxausti lasartearra kooperatibismoa eta euskara lotuko dituen ikerketa egiten ari dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Ikerketa horretan, Arizmendiarririk euskararekin izan zuen harremana eta kooperatibak sortu zirenetik gaur arteko ibilbidea eta etorkizuna zein den aztertuko dira, betiere euskararekin lotuta.

Lankiren, kooperatibismoaren inguruko gaiak aztertzen dituen institutuaren, eta Emunen arteko lankidetzak gauzatu du azterketa lana, eta ekainerako, seguru asko, bukatuta egongo da.

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA


IZOTZ Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA
Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

MENDIA

Mendi Astea antolatu du datorren asterako Murrukixo elkarteak

Edurne Pasaban mendizalea izango da martitzenean, Everesten inguruan berba egiteko

MIRARI ALTUBE

Murrukixo mendizale elkarteak Mendi Astea antolatu du azaroaren 26tik 30era bitartean. Hainbat mendizale hurreratu dira Murrukixoko lokalera, tartean, Andoni Areizaga eta Edurne Pasaban. Mendiaz gain, piraguismoak ere izango du bere tartetxoak.

Badira urte pare bat Murrukixok ez zuela Mendi Asterik antolatzen. Baina indarrak berritu eta, urtean hainbat ekintza antolatu eta gero, azaroko azken asterako Mendi Astea antolatu du mendia gustuko duen guztiarendako.

MENDIA ETA PIRAGUISMOA

Astelehenean, Ander Izagirrek Pangea espedizioa aurkeztuko du; munduko puntu baxuenen inguruan egingo du berba Anderrek. Martitzenean, hilak 27, berriz, Edurne Pasaban etorriko da Everesten izandako esperientzia kontatzera. Eguaztenean, neguan mendiak gordetzen dituen arriskuak agerraraziko ditu Andoni Areizagak. Eguenean, hilak 29, berriz, piraguismoari egingo diote tartea. Murrukixoko piraguismo sailak egindako irteeran grabatutako bideoa eskainiko dute. Azkenik, egubakoitzean, Ramon Iturrikastillo aretxabaletarak McKinley mendian aterako diapositibak erakutsiko dizkie Murrukixoko lokalera gerturatzaren diren guztiak.



Mendi Astean piraguismoari ere egingo zaio tartetxoak.

MENDIA ETA PIRAGUISMOA

Mendi Astearen helburua da mendizaleen ezagutzen berri izan eta euren bizipenen zirrara sentiaraztea. Murrukixo mendizale elkarteak kideek badakite, gainera, lokala betetzetik ez dutela izango, baina datozenak gustura egoten badira, ez da gutxi izango.

Momentu honetan, 600 bat bazkide ditu Murrukixok. Mendiaz gainera, piraguismo saila ere badauka, eta Leixargarateko aterpetxeaz ere elkarte hori bera arduratzen da. Ez dute mendi irteera askorik antolatu urtean, baina geldi ere ez dira egon.

XAKEA

Aretxabaletako taldea gertu zapatuan hasiko den Euskal Ligan parte hartzeko

Zapatuan hasiko da xakeko Euskal Liga. Aretxabaletako laukotea txapelketa hasteko gogoz dago, nahiz eta jakin oso txapelketa gogorra izango dela. Fran eta Andoni Miguel, Aitor Alcaide eta Esteban Romero jokalariek osatuko dute Aretxabaletako taldea.

FUTBOLA

Oraindik ez da erabaki futbol zelaia itxiko zaion edo ez UDAko preferenteari

Orain bi aste preferenteak Ibarren jokaturako futbol partiduak izandako istiluak direla eta isuna ezarriko zaio UDARI. Isuna zerbatekoa izango den eta futbol zelaia itxiko den edo ez, oraindik ez da erabaki Lehiaketa-batzordeak.

PILOTA

Final laurdenetan jausi ostean, 5.tik 8.era bitarteko postua erabaki beharko dute

Aretxabaletako bikoteek ez dute zorte handirik izan herri arte txapelketan. Azken faserako sailkatu ziren guztiak jausi dira final laurdenetan. Orain, Lasagabaster-Alzola eta Errasti anaiek, 5. eta 8.era bitarteko postua erabakitzeke liga jokaturako dute.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

UDA-Hondarribi

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA-Antzuola

Bigarren mailako erregionala.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. -Euskaljolbas

Kadeteak.

Zapatua. 19:00. Iturrigorri.

Aretxab.-Arrasateko

Gazteak.

Zapatua. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Pasajes 3 UDA 0

Preferentea.

UDA 4 Sta. Mª Vitoria 1

Gazteen Euskal Liga.

UDA 7 Ikasberri 1

Bigarren mailako erregionala.

Urki 3 UDA 4

Bigarren mailako gazteak.

UDA 2 Ilintxa 1

Lehenengo mailako kadeteak.

Bergara 1 UDA(b) 3

UDA 2 Urki 1

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 1 Txapagain 22

Kadeteak.

Eibar 22 Aretxab. 11

Lehenengo mailako gazteak.

Aretxab. 10 Añorga 22

Bigarren mailako gazteak.

Añorga (2) 22 Aretxab. (2) 4

Añorga (1) 21 Aretxab. (1) 22

Seniorrak.

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05
ARETXABALETA

ZARAIA
TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zurre zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

Expres

Santakurtz, 16
943 79 23 43

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19
Basabe, 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

SADHANA YOGA ETA
PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

ARETXABALETARRAK MUNDUAN

AITOR APRAIZ

22 URTE / IKASLEA / MONTRÉAL

“Bizitzen ikasteko alde egin nuen, orain arte Urkulutik ia irten barik nengoen-eta”

AMAGOIA LASAGABASTER


Hemengo ikasketak amaitu zituenean joan zen Aitor Kanadara. Han, Montrealean, zehazki, Goi Mailako Ingeniaritza ikasten dihardu orain. Horrexegatik eta frantsesa ikastearren joan zen Aitor Aretxabaletatik. Baina bazeukan beste arrazoi bat: “Bizi izaten ikasteko alde egin nuen, izan ere, orain arte Urkulutik urrunago egon barik nengoen-eta”.

Aitorren bizimodua Kanadan oso bestelakoa da hemen goarekin alderatuta. Badaki ikastera joan zela hara, eta aukera hori ondo aprobetxatu gura du. Horrela, goizean zazpietan jaiki eta gosalduek ondoren, eskolara joaten da. Han ia egun osoa ematen du ikasten, eta ilunkara aldera etxera itzultitakoan horretan jarraitzen du. Gauean telebista ikusiaz entretentzen da. Baina lagu-


nak egin eta parrandaren bat edo beste botatzeko aukera ere izan duela onartu digu. Lagunak, gainera, herrialde guztietatik etorritakoak ditu. “Montrealdik gehien gustatzen zaidana jendea da, mundu osoko herritarrak aurkitu ditut hemen, baita euskaldunak ere”

“Alde guztietako herritarrak aurkitu ditut hemen, baita euskaldunak ere”

Abuztuaren 17an joan zen Kanadara, eta ordutik hona ez da itzuli Aretxabaletara. Horregatik, hona etortzeko sekulako gogo duela esan digu: “Arrebarekin eta lagunekin egubakoitzetan kafea hartzea igaritzen dut faltan hemen”. Horrez gain, mendira joateko aukerarik ez du, eta horren falta ere igaritzen du Aitorrek. Hala ere, lasai dago, izan ere, hori eta gehiago egiteko aukera izango du Gabonetan, 20 bat egunerako hona etorriko da-eta. A! Eta bukatzeko zera esan digu, herria berak utzitako modu berean topatu gura duela.



HURRETIK



Angel Barandiaran

Aretxabaleta abesbatzako zuzendarixe

Oin dala 20 urte ekin zan Angel Barandiaran koruko zuzendari lanetan. 1980xen sortu zan Aretxabaletako korue, eta berak 81ien hartu euen korue zuzenketako batutie.

Betidanik gustau izen jatzu musikie? Bai, txikittatik, parrokixako koruen ibilli nitzen umetan, eta gero, instrumentu batzuk jotzen ikesi neuen.

Oin zuzendarixe izenda, musikie ze da zuretako, zaletasune ala ofiziue?

Musikie asko gustetan jat, hala eta be, partiturak prepartie, ensaiuek... horreik lanak izeten die.

Gustoko zuzendari bat? Von Karajan.

Eta abeslari bat?

Asko, baiñe bat esatekotan, Alfredo Krauss.

Zuk zeuk kantetan dozu?

Andriek eta korukuek esaten dustie isillik egoten banaz hobeto.

Musika instrumentorik jotzen dozu?

Bai, pianue eta organue jotzen ditudut.

Musika klasikue ala modernue?

Berez musikie gustetan jat, baiñe ez zaratie, kotxietako dunba-dunba hori, esate baterako, ez jat bat be gustetan.

Ametsen bat?

Osasun onaz jubiletie.

Eta amets txarren bat?

Ez dauket.

Gregorianue bueltauko da Aretxabaletara?

Ez dot uste, gregorianue oso leku konkretuetan bakarrik entzuten da. Hala eta be, guk ondiokan elixan abesten dogu gregoriano piezaren bat edo beste.

Koruaren hurrengo erronkie?

Abenduen Frantziako Tolosan kontzertue emutie.

Etxien zeñek daroie batutie?

Andriek, duda barik!


A. L.

NIREBIDAIAHURA / Fernando Berrizbeitia

Estatu Batuak / 2001eko abuztua

Fernando New York-eko atentatua gertatu baino hamar egun lehenago bueltatu zen Aretxabaletara. Baina orain, berriro ere hara bueltatuko zen galdetutakoan, duda barik baiezkoa eman du. Izan ere, bere esanetan, esperientzia ezin hobea izan da Estatu Batuetarako bidaia.

Lau urtez dirua aurrezten ibili ondoren egin zuten joan den udan Fernandok eta beste zapi lagunek Ameriketarako bidaia. Han, eurek aukeraturako lekuak ikusteko lau Estatuan zehar ibili dira: Kalifornia, Arizona, Utah eta Nevada. “Furgoneta bat alokatu eta 2.000 bat kilometro egin genituen”. Bidaia, gainera, kontrastez beteta egon da. Batetik, San Frantzisko edo Los Angeles moduko hiri handiak ikusi zituzten. Eta beste aldetik, Grand Canyon edo Yosemite parke naturalak bisitatu zituzten. Fernandori etxe-orratz izugarriak baino berdeguneak gustatu zitzaizkion gehiago. “Grand Canyon ikusteko hegazkin txiki bat alokatu genuen, eta benetan harrituta geratu nintzen hango ikusmirakin eta handitasunarekin”. Bestalde, bisitatutako beste leku batzuk nahiko tristeak iruditu zitzaizkion. “Las Vegas gezurrezko hiri handi bat da, argi ugari dago, baina hango jendea kasinoetan jokoan ikusteak tristura eragin zidan”. Eta Los Angeles-ekin ere sentsazio bera izan zuen, han, besteak beste, Hoollywood-en izan zen. “Sunset Boulevard gainbehera handian dago, han ez nuen izarren distirarik ikusi”



“Furgoneta bat alokatu eta bi mila kilometro egin genituen”


“Sunset Boulevard gainbehera handian dago”

Hango jendearen gainean ere galdegin diogu, eta hona hemen Fernandoren erantzuna: “Oso jende atsegina aurkitu dugu gure bidaian, baina esan beharra dago nahiko bereziak direla guztiak ere. Legeen mende bizi dira eta arauak oso barneratuta dituzte”.

A. L.



Grand Canyon-eko ikusmirak gustatu zitzaizkion gehien Fernandori.



LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN

AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak



G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

Haizea taberna



Gustoko giroa

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 23a / 57. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 2550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Eskoriatzako industrialde berrian 2.400 lanpostu berri sortzea espero dute

AINTZANE GARDOKI

Eskoriatzako industrialdeko lanak 2004rako guztiz amaituta egotea espero badute ere, datorren abendu edo urtarrilean banatuko dituzte lehenengo pabilioiak. Egitasmo horrekin arduradunen helburua da lanpostu berriak sortu eta kanpoko enpresak erakartzea.

1999ko martxoan hasi ziren lanak Eskoriatzako industrialdean. Hasierean lanak bi faseetan egiteko asmoa bazegoen ere, egun, bi faseok bata bestearen pare doazela adierazi digu Clemente Belokik, industrialdeko arduradunak. 28.200 m²-ko azalera duen industrialdean, 2004.urterako lanak amaitzea dute helburu, baina Belokik jakinarazi digu lehenengo pabilioiak datorren hiletik aurrera hasiko direla ematen, eta datorren urterako erdiak eman da izango direla.

2.400 LANPOSTU BERRI

Lanpostu berriak sortu eta Eskoriatzatik kanpoko enpresak industrialdean kokatzea dute helburu, besteak beste, arduradunek. Guztira 2.400 lanpostu berri sor-



2004. urterako bukatuko dituzte industrialdeko lanak

AINTZANE GARDOKI

tzea espero dute, eta dagoeneko herrikoak ez diren hainbat enpresa ere hantxe kokatuko dira. Horien artean, 100 gela izango dituen hotela eraikiko dute. Guz-

tira hiru motatako eraikinak izango dira industrialdean: industrial jarduera dutenak soilik; mistoak direnak, hau da, jardueraz gain, bulegoak izango dituztenak; eta

bulegoak soilik izango direnak. Lehen atalekoei dagokienez, guztiak daude salduta, eta mistoetan eta bulegoen artean, berriz, erdiak daude saltzeko.

2004. urterako lanak amaituta egotea espero dute. Lehen pabilioiak laster banatuko dituzte

Lanpostu berriak sortu eta kanpoko enpresa berriak erakarri nahi dira industrialdera

Pabilioi industrialak, mistoak eta bulegoak joango dira

HERRITARRENHITZA / Lorea Agiriano

Eskoriatza, gure city ttipia

Gure herri txiki, xume eta lasai honek city itxurak hartu dituela gehiegizkoa irudituko zaio askori. Ez dugu metrourik ez eta aireporturik, oraingoz, herri gaineratik pasatuko den autopistarik ere ez. Baina badira aste batzuk herria karteletz josi digutela. Hiri handietan bezala nondik nora mugitu jakiteko jarriko zituzten seguruenik. Baina nik bigarren zentzu bat ere hartzen diet.

Eskoriatzako sarreran "Herriaren erdigunea" seinalea barik, abisu bat zela ulertu nuenean, orduan, jabetu nintzen gure herria ez dela hiri

handien hain bestelakoa. Izan ere, "Herriaren erdigunea" bezalako abisu bat ikusteak instintiboki freno zapaldu eta soseguz joatera behartzen gaitu. Osterantzean, abiadura murrizteko maila horiek susto galanta emango ligukete. Behin plaza inguruan hartzen zaio abisuari benetako zentzua: horra hor erdiguneko kaosa!

Auto ilara amaigabeak,



"Plazan hartzen zaio abisuari zentzua: horra erdiguneko kaosa!"

estanko parean, kamioi handi bat gurutzatuta, etxeko andrea leihotik zintzilik, kamioiak balkoia eramango dion beldurrez; eta, gurean ere ezin falta, herriaren erdigunea, obraz josita!

Egunerokoak! Beste askotan, berriz, kulpa handiena herritarrok izaten dugu. Ez al dute akaso kaosa sortzen Aranburuzabala kalean "utzita" egoten diren autoak? Espaloiak

libratzeko piboteak jarri ziren. Orain, bidea libratzeko kome-riak franko!

Kanpotik hona etortzen direnek ere esango dute, ba, zerbait. Ez dira gutxi, gainera! Guk ere badugu unibertsitatea herrian. Gure Museo Eskola ttipia ez da Guggenheim, baina honek ere izaten ditu bisitari ugari. Bada, jarri dituzten seinaleak baliagarriak dira oso bisitariarentzat. Eta "Herriaren erdigunea" dioen horrek ohartaraziko die Eskoriatza gure city dela eta hemen ere, hiri handietan bezala, pazientziatziaz ibili beharko dutela.

LABUR

Osasun eta kirol gida berria kaleratu du MUK

Erabateko eskaintza dakar gida berriak, eta hainbat arlo lantzen ditu: prestakuntza ikastaroak, izadiak gozatzeko jarduerak, sasoiak lantzekoak, MUKo barne lehiaketak, hemendik kanpoko lehiaketak, jardura osagarriak, tresneria mailegatzeko zerbitzuak, informazio zerbitzuak eta osasun azterketak jasotzen dira, besteak beste.

Osasun eta Kirol Saila sendo dabil, izan ere, iaz, 1.800 ikaslek parte hartu zuten sail horren egitasmoan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

| | |
|--------------------------------|--------------|
| ESKORIATZA | |
| Udaletxea | 943 71 44 07 |
| Udal Bulegoak | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea | 943 71 46 88 |
| Gizarte-Laguntzailea | 943 71 31 36 |
| Kiroletxea | 943 71 53 28 |
| Liburutegia | 943 71 31 35 |
| Luis Ezeiza | 943 71 53 56 |
| Jose Arana-Almen Ikastol. | 943 71 44 86 |
| Almen | 943 71 49 07 |
| Museo-Eskola | 943 71 54 53 |
| Axtroki? | 943 71 40 77 |
| HUHEZI | 943 71 41 57 |
| Osakidetza | 943 71 44 52 |
| Telesko | 943 71 49 17 |
| Taxia | 943 71 40 59 |

BESTELAKOAK

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Eskualde Ospital (Arrasate) .. | 943 00 53 00 |
| Gurutze-Gorria (Bergara) .. | 943 76 55 76 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oñati) | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |
| Renfe (Gasteiz) | 945 23 20 30 |
| Pesa (Arrasate) | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate) | 943 77 10 43 |
| SOS Deiak | 112 |

OHARRAK

GAZTAINA ERREAK LUIS EZEIZA
IKASTETXEAN

Azken urteetako ohiturari eutsiz, gaur, egubakoitza, ikasle, irakasle eta gurasoendako gatzaina erre eguna egin dute.

SANTA ZEZILIAKO KONTZERTUA

Oraingoan, bai! Santa Zezilia pasatu dela eta, kontzertua eskainiko du Musika Eskolako Bandak bihar parrokan, 20:00etan.

BENITO LERTXUNDIREN
KANTALDIA

Datorren egubakoitzean, Kiroldegian, 22:30ean. Sarrerak: aurretik, 1.000 pezeta, eta han bertan, 1.200.

AXTROKIRENAGENDA

BERTSO AFARIA

Imanol Lazkano, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallus bertsolariak izango dira bihar Toki Alai tabernan, 21:30ean. Sarrerak 3.000 pezetan Mirentxu eta Aldatz tabernetan.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Ganuza jauregia, udalerriko arkitektura eraikinik adierazgarriena, bizirik

Ganuza jauregia herriko erreferente izan da beti, orain eta lehen. Egungo eraikina gorabehera ugariren

ondorio da, hainbat ugazaba izan ditu-eta mendeetan zehar. XVII. eta XVIII. mendeetan Vicuñañarak izan ziren jabeak, eta bizi

izan ziren azkenak, Nafarroatik etorritako Ganuza familiakoak. Orain, berriz, Arizmendi ikastola da jauregiaren jabe.



1930 Josefa Ganuza, hango alaba, Telesforo Monzón bergararrarekin ezkondu zen. Ezkontza Ganuza jauregian bertan ospatu zuten, argazkia horren lekuko. Bolada batez bakarrik izan ziren han; izan ere, azkeneko urteetan etxea itxita egon da.



2001 Arizmendi ikastolak 1999an ekin zizkion eraikina berritzeko lanei. Jatorrizko egitura eta beste elementu ugari errespetatu badira ere, mendeetan isiltasuna nagusituko zen gela eta pasilloetan, orain, abesti, zenbaki eta algaraz betetzen dituzte Eskoriatzako txikienek.

BOTEPRONTOAN



Virginia Rivas

Prentsa saltzailea

Arrasaten jaio eta Aretxabaletan bizi arren, eskoriatzarra dela dio. Biologian lizentziaduna bada ere, amaren postuan indartsu dago Virginia, nahiz eta beste asmo batzuk izan.

Zergatik egunkari saltzaile?

Aitonarengandik datorkigu. Gero, amak heldu zion, eta orain, ikasketak amaituta lanik ez dagoenez, niri tokatu zait txanda.

Zein egunkari duzu gustuko?

Ohituraz, *Diario Vasco*. Euskaldunon Egunkaria ere gero eta gehiago irakurtzen dut.

Zenbat irakurtzen duzu?

Nahi baino gutxiago. Goizean goizetik iluntzeraino, hemen ez dago astirik.

Egunkaria ala aldizkaria?

Liburuak. Historikoak. ToTi Matínez de Lezea dut oso gogoko.

Zer da gehien saltzen dena?

Diario Vasco. Aldizkarietan, bihotzekoak, baina oso modan daude osasunaren ingurukoak ere.

Telenobelak ala bihotzeko aldizkariak?

Ez bata eta ez bestea.

Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Biologoa. Eta izan banaiz, baina orain lana falta...

Aurrerantzean mostradore atzean egoteko asmorik bai?

Ez. Ingurumenarekin lotutako lan batean aritu nahi nuke.

Domeketan lan egin beharra?

Oso gogorra. Oso lan lotua da, astelehena edo domeka izan, berdín dio. Urtean hiru egunean bakarrik ixten dugu.

Euroari beldurrik?

Bat ere ez. Nagusiak dendetan engainatuko dituzten beldur dira.

Oporretarako leku bat?

Ibiza.

AINZANE GARDOKI

Pub ALDATZ

Musika ona
entzun dezazun

Tel.: 943 714171

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekoratiibo eta
Industrialala

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18



Hotzari aurre egin guran

Gatzagan erroldatuta dagoen eta herrian bizi den edozein biztanlek du neguan berotan egoteko eskubidea.

Aspaldidanik, eta ohitura den legez, Udalak basoetako egurra behar duen herritarren artean banatzen du. Irail eta urria bitartean deialdia egiten du gatzagarren artean, eta egurra behar duenak izena eman ondoren, zozketa egiten da eskaera egin duten guztien artean. Ordurako, Foru Aldundiko teknikariak eta Udaleko Baso eta Mendiaren zinegotziak loteak markatzen dituzte. Aurten, 11 etxek eskatu dute egurra/A.G

LABUR

Pilota txapelketa hasiko da bihar Gatzagan

Herriko gazte talde batek antolatuta, pilota txapelketa hasiko da bihar. Guztira zortzi bikotek eman dute izena. Bete beharreko baldintza bakarra da bi pilotarien artean gutxienez 65 urte izatea.

Antolatzaileen esanetan, neguan herriari giro beroagoa eman guran antolatu dute txapelketa. Datozen zapatuetan, 18:30etatik aurrera egongo da zertaz gozatu herrian. Oraindik gatzagarren batek parte hartu nahi izanez gero, badu aukera. Zorte on, bada, parte hartzaile guztioi!

HURRETIK/ Ina Alonso · Ehiztaria

“Ehiza niretako ia dena da, urte osoa joaten zait horren inguruan. Oso-osoan betetzen nau”

Ina Alonsok aitarengandik jaso zuen txikitatik ehizarako grina. Aurten, Gatzagan bertan, hirurehunetik gora uso ehizatu ditu anaiarekin batera. Uso pasea amaitzear dagoenean, Inarekin berba egin dugu.

Aita izan zenuen irakasle?

Bai, eta ezagutu dudak ehiztari onena; oso zorrotza izan zen gurekin, ez zuen akatsik onartzen. Eskopeta hartzeko gaitasuna eduki nuenetik, haren atzetik ibili naiz.

Zer da ehiza zuretako?

Ia dena da. Oso-osoan betetzen nau. Urte osoa joaten zait horren inguruan. Udazkenarekin, odola bor-bor jartzen zait, haizea bizitzen hasten zara, bihar zer egingo dute usok

galdetzen, etorriko diren edo ez, zein jarrera izango duten...

Ezin izaten dut lorik hartu, eta basora joaten naiz lotara.

Zein prestaketa mota eskatzen ditu ehizak?

Arropek, adibidez, lurraren kolorekoak izan behar dute. Usotan ibiltzeko, esaterako, ezinbestekoa da ondo kamuflatu egotea. Hori ez da ahobero-keria, askok pentsatzen duten moduan. Ehunka begi ditugu goitik begira, eta guk harrapatu behar ditugu eurak ustekabeen, ez eurak gu.

Zer ehizatzea duzu gogoko- en?

Usotan egitea dut gustukoan, usoa da-eta ehiztariari dituen dohain guztiak frogatzeko eskatzen dion animalia.



Eta ehiztari moduan gutxien gustatzen zaizuna?

Dena dut gogoko, baina, agian, sasi-ehiztariak eta ehiztari txarrak. Ugari daude, gainera, baina haiek ere errespetatu behar ditugu, gure moduan zaletasuna izango dute-eta. Esperientzia falta ere izan dezakete askok. Eta ehiza lekuak gainezka izaten dira aspaldian.

Gatzaga oso preziatua da.

Oso bide ona da hegaztiendako. Hemengo arauak ondo dakizkigu, eta errespetatu egiten ditugu hemen ibiltzen garenok. Baina aspaldian, postu gehiago ateratzen dituzte enkantera, eta geroago eta zailagoa da denok disfrutatzea.

Ehiztariok kontrako jende

ugari izaten duzue.

Hori gertatzen da ez dakitelako ehiza zer den eta ehiztariok ehiza zelan bizi dugun. Ehiztariok harreman zuzena dugu naturarekin, naturaren mende gaude, orduan, zelan egingo dugu, bada, haren kontra? Nik usoari, 25 metro baino urrutia- go badago, ezin diot tirorik egin, ezin izango dudalako garbi hil. Usoak ezin dira zaurituta utzi eta basoak zarataz josi. Ehiztaria kontsekuentea da egiten duenarekin. Urte ona izan da usotarako? Ezin hobea. Zoragarria. Goizeko 6etatik iluntzera arte pasea egon da. Disfrutatzea. Nork lumatzen ditu piezak? Saldu egiten ditugu. Eskuetatik kentzen dizkigute.

KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, **opariak ere lortu ahal izango dituzu**. Anoetako partiduetarako **sarreraren zozketan parte hartu**, eta **bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai**,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, **2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen, eramango duzu opari.**



Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.

kutxa

zure diruaren balio erantsia



NISSAN

**ALMERA. AUTO BAT EROSI
BEHAR BADUZU, LEHENENGO
HAUXE PROBA EZAZU.**

AGIAN, PENTSATUKO DUZU HEMEN
NAGOELA NISSANEK HEMEN EGOTEKO
ORDAINDU DIDALAKO. EGIA DA.
BAINA EZ NIZUKE EGIA EZ DEN EZER ESANGO.
ALMERA GASOLINA ETA TURBO-DIESEL 2.2
INJEKZIO ZUZENEKO MOTORRAK DITUEN
AUTOA DA. EGONKORTASUN HANDIA
ETA DISEINU EZIN HOBEA. BENETAN,
NISSAN ALMERA AUTO ITZELA DA.


Nissan Almera
2.041.000
pezetatik aurrera
12.266,66 €

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGA BARIK

ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

*Salneurri gomendagarria (Barne hartzen du: BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, Nissan Assistance sustapen kanpaina eta bost urteko bermea kilometraje barik).
Floten, taxien, zerbitzu publikoen eta autonomoen balditzetarako, zatoz Nissan kontzesionariora. Prezio baliagarriak penintsulan eta Balear Uharteetan eta stock-ean dauden autoendako.



Sofa
leku

Oso
eroso.



grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores
a. eme. sukaldeak
centro hogar mueble
sofa leku

www.grupo-aeme.com

- Tel.: 943 79 15 03
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 71 10 12
- Tel.: 943 77 14 92

grupoam@grupo-aeme.com